



frutos del paraíso



Ángel OLARTE
(Vitoria-Gasteiz, 1897 – 1924)
Adán y Eva, 1923
(detalle)

La exposición **Frutos del paraíso, pintura de flores y jardines en el Museo de Bellas Artes de Álava** nos permite acercarnos a la representación de las flores y los jardines a través de un gran número de obras pertenecientes a los fondos de este museo. Con ella hemos querido aproximarnos a ese mundo sensible en íntima relación con la naturaleza y con el ser humano, pues tanto las flores como los jardines nos han provocado admiración, constituyendo un ornato para los sentidos.

Esta exposición cubre una parcela apenas trabajada en los museos del País Vasco, convirtiéndose en una muestra pionera donde se conjuga la belleza de las flores y los jardines a través de su representación. Para acompañar las obras expuestas hemos elaborado un texto con dos grandes apartados, el primero dedicado a la pintura de flores y floreros en el Museo de Bellas de Álava y el segundo a la pintura de jardines del mismo museo. Hemos elegido la opción de crear dos discursos diferentes por la dificultad que tenía integrar en un mismo texto dos temas que tradicionalmente han sido estudiados de forma autónoma, a pesar de que los dos puedan tener conexiones y relaciones formales.

La pintura de flores y floreros ha buscado la plasmación tangible de la naturaleza en un intento de capturar eternamente esa viveza que tiene fin, que es efímera, que se marchita. Pero también aporta una función decorativa, pues la flor siempre ha merecido nuestra admiración por su belleza y deleite en un intento de tener a nuestro alcance su primor natural. No hemos de olvidar su valor simbólico, pues sus mensajes alegóricos nos han acompañado siempre, aunque en ocasiones hayamos perdido parte de su contenido en favor del



Nicolás A. TARKHOFF
(Moscú, 1871 – Orsay, Francia, 1930)
Bouquet de fleurs printanières
(*Ramo de flores primaverales*)



Juan de ECHEVARRÍA
(Bilbao, 1875 – Madrid, 1931)
Florero con margaritas, 1915

propio deleite y disfrute formal. Tampoco hemos abandonado su ancestral uso ritual, ceremonial, sus propiedades medicinales y culinarias e incluso su inspiración literaria en poemas y cantos.

Estamos ante un tema de gran transcendencia en la Historia del Arte, cuyos orígenes debemos remontarlos a la Antigüedad. Las flores, por sí mismas o acompañadas por otros complementos, siempre han jugado un papel esencial dentro del lenguaje decorativo e icónico de la sociedad. No hay más que hacer un pequeño repaso por la historia del arte para encontramos con motivos florales en todas las grandes civilizaciones del pasado, la Edad Media, la época moderna y contemporánea, así como la más cercana actualidad.

Por su parte los jardines han estado siempre en íntima relación con la naturaleza, con el paisaje y las flores. El propio Francisco Martínez en su obra *Introducción al conocimiento de las Bellas Artes...* publicado en 1788, decía que un jardín sembrado de flores podía mirarse como la paleta de la naturaleza. Y es que, en realidad, el jardín es una naturaleza modelada por la mano del hombre empleando distintas técnicas que van desde la agricultura a la arquitectura, la escultura, la hidráulica o la topiaria. Es algo más que una naturaleza domesticada: es un ambiente donde el ser humano puede comunicarse e integrarse en esa misma naturaleza, como si de un microcosmos se tratara. El jardín ha funcionado siempre como un elemento de representación de ideas, conceptos y voluntades, tanto de su autor como del cliente o de la época a la que pertenece. Es un arte vivo, cambiante, que ha inspirado a poetas y a artistas. Y esa inspiración que jardines de todas las épocas han transmitido a nuestros pintores es la que podemos admirar en esta exposición. La que tras-



Ignacio DÍAZ OLANO
(Vitoria-Gasteiz, 1860 – 1937)
Niñeras en La Florida,
hacia 1925-1930

lada al espectador hacia sentimientos de paz, belleza, reflexión, pensamiento y conciliación con la naturaleza y el ser humano.

Las flores y los jardines están por tanto en íntima relación con esa naturaleza y con el devenir del ser humano. Nos han provocado admiración y placentera visión y desde la Antigüedad hasta la actualidad, han formado parte de nuestras vidas, nos han acompañado, nos han hecho disfrutar, sentir, vivir. Hemos llegado a domesticarlos, a hacer de ellos un arte y nos han enseñado a observar la belleza cambiante, acompañándonos en este largo proceso de convivencia con la naturaleza. Se han convertido en objetos de inspiración y representación, como podremos advertir y sentir a lo largo de esta exposición.


En esta muestra vamos a tener la posibilidad de disfrutar con obras de gran relevancia que abarcan desde el siglo XV hasta el XX. De entre todas ellas vale la pena destacar una tabla del siglo XV atribuida al maestro de Ávila, dos cobres flamencos del siglo XVII, y una gran variedad de pinturas de autores tan destacadas como Eduardo Rosales, Eugenio Lucas Villaamil, Joaquín Sorolla, Francisco Masiera o Tarkhoff. No podían faltar grandes protagonistas de la pintura del País Vasco como Fernando de América, Anselmo Guinea, Ignacio Díaz Olano, Juan de Echevarría, los hermanos Zubiaurre o José María Ucelay, entre otros muchos. Todos ellos han visto en las flores y en los jardines un motivo destacado de representación con el que poder comunicarse con el espectador para hacerle disfrutar.

Fernando R. Bartolomé García

(Portada)

José María UCELAY
(Bermeo, Bizkaia, 1903 – 1979)
Sombrero, 1957

(detalle)



Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

Museo de Bellas Artes de Álava
Paseo de Fray Francisco, 8
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 18 19 18 - 945 15 52 26
Fax: 945 18 19 19
e-mail: museobellasartes@alava.net

Octubre de 2015 • Febrero de 2016

Horario
Martes a viernes:
10:00 - 14:00 y 16:00 - 18:30
Sábados:
10:00 - 14:00 y 17:00 - 20:00
Domingos y festivos:
11:00 - 14:00
Lunes, excepto festivos, cerrado

Tarifa General: 3 €
Reducciones y exenciones
(con acreditación) según Orden Foral
vigente
Primer sábado de cada mes:
acceso gratuito



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



paradisuko fruituak



Fernando AMARIKA
(Gasteiz, 1866 – 1956)
Arrosak, 1895

Paradisuko fruituak, loreen eta lorategien margolaritza Arabako Arte Ederren Museoan erakusketaren bidez, loreen eta lorategien irudikapenera hurbildu ahal izango gara, museo honetako funtsetan dauden obra asko erabiliz horretarako. Hura aitzakia hartuta, mundu sentikor horretara iristeko ahalegina egin nahi izan dugu; hain zuzen ere, naturarekin eta gizakiarekin zuzenean lotuta dagoen mundu sentikor horretara, bai loreek bai lorategiek miremena sorrarazi digute eta, gure zentzumenendako edergarri izan baitira.

Erakusketa honek Euskadiko museoetan oso gutxi landu den arlo bat betetzen du, eta aitzindaria bihurtu da. Erakusketa horretan loreen eta lorategien edertasuna uztartzen dira, haien irudikapenaren bidez. Erakusitako obrei laguntzeko, testu bat prestatu dugu, atal handi bitan bereizita; lehenengoan Arabako Arte Ederren Museoan dauden loreen eta loreontzien margolanak jorratu dira, eta bigarrenean museo berean dagoen lorategien pintura. Diskurtso bi sortzea erabaki dugu zailtasun bat zegoelako; izan ere, bere baitan, testu berean, tradizioz autonomoki aztertu diren gai bi bildu behar ziren, biek lotura eta erlazio formalak izan ditzaketan arren.

Loreen eta loreontzien margolaritzak naturaren irudikatze nabarmena bilatu du, amaiera duen eta iheskorra den bizitasun hori, esaterako, berehala zimeltzen den lore-sorta batena, betiko atzeman nahian. Baina eginkizun apaingarria ere badauka; izan ere, loreen margolanak gure mirespena izan du beti bere edertasunagatik eta bikaintasun naturalaren zati bat gure eskura edukitzen saiatzearen atseginagatik. Ezin ahaztu dezakegu daukan balio sinbolikoa, haren alegoria mezuak gure lagun izan baitira betidanik, nahiz eta batzuetan hark gordetzen duena galdu dugun gure atsegina bilatzearen eta haren



Eugenio LUCAS VILLAAMIL
(Madril, 1858 – 1918)
Familia eszena lorategian

itxuraz gozatzearren. Era berean ezin dugu ahaztu erritueta, zeremonietan loreei antzinatik ematen zaien erabilera, haien ezaugarri sendagarriak edo sukaldaritzakoak eta are poemetan eta kantuetan ematen duten inspirazio literarioa.

Artearen Historian garrantzi handiko gaia da, eta haren jatorriak Antzinaroan bilatu behar ditugu. Loreek, berez edo beste osagai batzuek lagunduta, funtsezko eginkizuna izan dute beti gizartearen hizkuntza apaingarri eta ikonikoaren baitan. Artearen historia gaineratik ikuste hutsa nahikoa da iraganeko zibilizazio handi guztietan lore motiboak aurkitzeko; hain zuzen ere, Erdi Aroan, garai modernoan eta garaikidean; baita gaur egun ere.

Gainerakoan, lorategiak betidanik egon dira estu loturik naturarekin, paisaiarekin eta loreekin. Francisco Martinezek berak, bere lan *Introducción al conocimiento de las Bellas Artes* izenekoan (1788an argitaratua), esaten zuen lorez ereindako lorategi bat naturaren paleta izan zitekeela. Izan ere, lorategia gizakiaren eskuek moldatutako natura da. Horretarako zenbait teknika erabiltzen dira, hala nola nekazaritza, arkitektura, eskultura, hidraulika edo topiaria. Natura etxekotua baino gehiago da: giro bat, non gizakia natura horrekin berarekin komunikatu daitekeen eta natura horretan bertan integratu daitekeen, mikrokosmos bat baillitza. Lorategia bere egilearen zein bezeroaren edo kokatzen den garaiko ideien, kontzeptuen eta borondateen irudikapeneko elementu gisa erabili da beti. Arte bizia, aldakorra da, eta poetak eta artistak inspiratu ditu. Eta garai guztietako lorategiek gure margolariei helarazi dien inspirazio hori da, hain zuzen ere, erakusketa honetan miretsi ahalko duguna. Ikusleari bakea, edertasuna, hausnarketa, pentsamendua eta naturarekin eta



Inocencio ASARTA
(Gastiain, Nafarroa, 1861 – Bilbo, 1921)
Lorategia, 1908

gizakiarekin adiskidetzeari bezalako sentimenduak helarazten dizkiona.

Loreak eta lorategiak, beraz, naturari eta gizakiaren bilakaerari estu-

ki lotuta daude. Miresmena sorrarazteaz gain haiek ikusten gozatu dugu, eta Antzinarotik egun arte gure bizitzetan egon dira, lagundu, gozarazi, biziarazi, sentiarazi egin digute. Etxekotu egin ditugu, arte bihurtu ditugu eta edertasun aldakorri begiratzen irakatsi digute, naturarekin batera bizitzeko prozesu luze honetan lagun izan ditugula. Inspirazio eta irudikapen objektu bihurtu dira, erakusketa honetan jabetuko garenez, eta halaxe sentituko dugu.


Erakusketa honetan XV. mendetik XX. mendera arteko lan garrantzitsuez gozatu ahalko dugu. Haietatik guztietatik hauek nabarmendu behar dira: ustez Avilako maisuak XV. mendean egindako taula bat, XVII. mendeko flandiar kobre bi, eta Eduardo Rosales, Eugenio Lucas Villaamil, Joaquín Sorolla, Francisco Masiera edo Tarkhoff bezalako egileen askotariko margolanak. Euskal Herriko margolari handiak ere egongo dira: Fernando Amarika, Anselmo Guinea, Ignazio Diaz Olano, Juan Etxebarria, Zubiaurre anaiak edo Jose Maria Uzelai, besteak beste. Haiek guztiek loreetan eta lorategietan irudikatze motibo nabarmen bat ikusi dute, haien bidez ikusleekin komunikatu ahal izateko ikusleak gozarazteko helburuarekin.

Fernando R. Bartolomé García

(Ataria)

Jose Maria UZELAI
(Bermeo, Bizkaia, 1903 – 1979)
Kapela, 1957

(xehetasuna)



Arabako Arte Ederren Museoa
Museo de Bellas Artes de Álava

Arabako Arte Ederren Museoa
Frai Francisco ibilbidea, 8
01007 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 18 19 18 - 945 15 52 26
Fax: 945 18 19 19
e-mail: museobellasartes@alava.net

2015eko urria • 2016ko otsaila
Ordutegia
Asteartetik ostiralera:
10:00 - 14:00 eta 16:00 - 18:30
Larunbatetan:
10:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan:
11:00 - 14:00
Astelehenean, jaiegunak izan ezik, itxita

Tarifa orokorra: 3 €
Murrizketak eta salbuespenak
(egiaztagiriarekin), indarrean dagoen foru aginduaren arabera
Hilabeteko lehenengo larunbatean:
Sarrera doan.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net